

«Ostatuak martxa izatea garrantzitsua da herrirako»

UXER MOZO EIZMENDI
OSTALARIA

Ikaztegietarrak uztailean hartu zuen herriko Ostatuaren ardura, eta «pozik» dago herritarrek egindako harrerarekin eta emandako laguntzarekin //6

Ibarra Sokatira
Taldeak
taldekide
izateko gonbita
luzatu du //7

Unai Egibar
Euskaltel-
Euskadi
taldean
ariko da //7



TOLOSA

HODEI TRUK-ENITZULERA

Tolosako Hodei Truk haur eta gazte abesbatzak 2014. urtean eten zuen jarduera; zuzendari aldaketarekin berriro ere emanaldiak eskaintzen hasiko dira, eta horretarako, 6 eta 14 urte arteko gaztetxoek bila ari dira //2


IRATISAZAR

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA

Hodei Truk bueltan da

Urte batzuetako atsedenaldiaren ostean, zuzendari berriarekin dator Tolosako abesbatza; Shrabani Aranzabek zuzenduko du taldea eta David Azurza izango da koordinatzailea

Asier Imaz / Irati Salzar

Tolosako Hodei Truk haur eta gazte abesbatzak urte batzuk egin ditu geldirik eta ikasturte berriarekin batera eraberrituta dator. Kasu honetan, gainera, zuzendari berria izango du abesbatzak: Shrabani Aranzabe. Ia 30 urtez zuzendari aritu den David Azurzak eman dio lekukoa, baina ez doa urrutira, abesbatzako koordinatzaile postua hartu baitu.

2014 inguruan hartu zuen atsedena Hodei Trukek, Azurzak azaldu duenez, «laneko antolaketa» ezin izan zuelako proiektuarekin jarraitu. Baina orain ilusioz hartu dute erronka, eta 6 eta 14 urte arteko haur eta gaztetxoek bila ari dira, abesbatza osatu ahal izateko. Abesbatzan izena eman nahi duenak hodeitruk@gmail.com helbidera idatzi beharko du edo bestela 662 285 417 zenbakira deitu. Azaldu dutenez, gaztetxoek probatzeko aukera izango dute lehenik, abesbatza barnetik ezagutu dezaten. Gutxienez 15 gazte elkartu nahi dituzte, eta behin lanean hasita, taldea osatzen joatea da asmoa.

Entseguetarako lekua mantendu egin dute, Topic-en egin-gotuzte, arratsalde, 17:30etik 19:00etara.

«Edonork balio du kantatzeko. Gauza guztietan bezala, prestatuta edonork abestu dezake, ez badu behintzat ahots arazo larriren bat», esan du Aranzabek. Azurzak gaineratu du «interesa, ilusioa eta gogoia» izanez gero, ondorengo erraz egiten dela. Gutxieneko abeslari kopuru bat lortzen badute, martxan jarri eta Eguberrietan kontzertu txiki bat ematea jarri dute helburuen artean: «Hodeiertz abesbatzaren eskutik goaz, eta bien artean osatuko genuke kontzertua edo zerbait eginez beraien kontzertuan hartuko genuke parte».

Martxan jarri nahi duten proiektua beste ikuspegi batekin egin nahi dute. Kantatu bakarrik ez, «abesbatza puntu bat harago eramane eta eszena mailako lan pixka bat egitea» darabilte buruan, Azurzak azaldu duenez. Urtarriletik aurrera proiektu po-



Shrabani Aranzabe Hodei Truk abesbatzako zuzendari berria ezkerrean eta David Azurza koordinatzaile berria eskuinean. I. S. A.

toloago batean sartzeko asmoa dute, baina ez dute gehiegi aurreratu: «Ideia oso berezi bat dugu, koru batentzat oso interesgarria izan daitekeen proiektu bat da; joango gara zehazten aurrerago».

ZUZENTZETIK KOORDINAZIORA

Hodei Truk abesbatzak 1987an ekin zion ibilbideari, David Azurza zuzendariaren eskutik. 27 urte inguru taldearekin lanean aritu ostean, etenaldia egin du abesbatzak eta indarberrituta bueltatu da ikasturte berriari ekitera. Orain, ordea, koordinatzaile lanetan ariko da. «Esperientzia luzea izan dut zuzendari moduan, eta orain Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko koordinatzaile lanetan nabil eta Hodei Truken ere lan horretan jarraituko dut», esan du Azurzak.

Koordinatu eta proiektuak hausnartu eta diseinatu egingo ditu, besteak beste, baina zuzendari berriari laguntza emateko ere gertu izango da, Aranzabek azaldu duenez: «Lekukoa eman

didana aldamenen izatea niretzat garrantzitsua da, nirekin egongo da, eta beti dago laguntzeko». Ilusioz eta lanerako prest hartu du kargua Aranzabek: «Koruen munduan erreferente bat da David eta bere lekukoa hartzea erantzukizun handia da niretzat».

Hodei Truken abesten parte hartutakoa da Aranzabe, hainbat urtez: «Lehendik beste abesbatza batean aritu nintzen, baina ilusioa sortu zidana Hodei Truk izan zen, abesbatza finko bat topatu nuen, proiektu oso potoloak zituen; hori izan zen abesbatza mundura lotu ninduen».

Abesbatza martxan izan den urte guztietan ehunka haur pasa direla gogoratu du Azurzak, urtero, 30 edo 40 ume inguru izaten baitzituzten. «Hurrek daukaten freskotasuna eta naturaltasuna da baloratzen dena; errepertorioa arinagoa da, normalean alaiagoa, bai ikusteko eta baita entzuteko ere; jendeak asko eskertzen du», gehitu du.

Haurren korua «dinamikoa eta freskoa» izan dadin egin du lan orain arte, koreografiak eta mugimenduak sartuz, espresioa landuz eta gorputzeko lanketa eginez.

«Koruen munduan erreferente bat da David eta bere lekukoa hartzea erantzukizun handia da niretzat»

SHRABANI ARANZABE
HODEI TRUKEKO ZUZENDARIA

«Hurrek daukaten freskotasuna eta naturaltasuna da baloratzen dena; jendeak eskertzen du»

DAVID AZURZA
HODEI TRUKEKO
KOORDINATZAILEA

Jendeak koruekiko duen pertzepzioa bestelakoa dela ere aipatu dute. Aranzabek esan du askok pentsatzen dutela koruan kantatzea elizako kontu bat dela, «baina ez dauka zerikusirik». Azurzak esan du «abesteko leku

hoberenak elizak» direla, eta nahiz eta askotan kontzertuak elizetan egin, ez duela esan nahi loturarik badutenik. Pertzepzio horretatik urrun, jendeak abesbatza batean abestea zer den probatzen duenean beste gauza bat dela konturatzen direla esan dute.

OHITURAK GALTZEN

Pena puntu batekin dio Azurzak kantatzeko joera galtzen ari dela: «Beste modu batzuk daude orain; lehen edozein bazkari edo afari abestuz amaitzen ziren eta hori galtzen ari da, eta orain, musika jartzen da, oso altu, baffle bidez; horrekin arlo bat betetzen da baina bestea ez».

Koruek daukaten gauza bereziena «alde gizatiarra» da, Aranzaberen arabera. «Guk ez daukagu instrumenturik, ahotsa erabiltzen dugu, ahots propioa da musika egiten duena». Eta bere lana horren guztiaren kohesioa lortu ahal izatea da, «ez gainetik, ez azpitik egonik, bidelaguna izatea».

Irailak 30 da Auzokon izena emateko azken eguna

IBARRA // Euskaltzaleen Topaguneak sustatzen duen egitasmoa da Auzoko, eta Tolosaldean 2016tik dago martxan, Ibarren zehazki. Ikasturte honetan egitasmoa abiarazi nahi dute berriz ere, eta izena emateko epea zabaldu dute. Hilaren 30ean izango da izena emateko azken eguna, eta eider@topagunea.eus helbidera idatzita edo 688 764 540 telefonora deituta egin daiteke.

Leaburuko liburutegirako langile bat kontratatuko dute

LEABURU-TXARAMA // Leaburu-Txaramako Udalak liburutegi zerbitzurako langile bat kontratatzeko asmoa du. Lanaldia astean 6 ordukoa izango da, eta lan egunak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira. Liburutegiko ohiko lanez gain, udalaren webgunea eguneratu behar du. Lanposturako interesa dutenek curriculum a eraman behar du eta udaletxera irailaren 27a baino lehen.

Datozen bi asteburuetarako emanaldiak, Leaburun

LEABURU-TXARAMA // Leaburu-Txaramako Udalak bi emanaldi antolatu ditu; *GenEroa* ikuskizuna igandean izango da, 18:30ean, pilotalekuan eta urriaren 2an *Luze eta Motz* umorezko bazarriketa saioa izango da, leku eta ordu berean. Ikuskizunera joateko udaletxean edo 943 675 931 telefonora deituta eman behar da izena; *GenEroa* ikusteko bihar da azken eguna eta bakarrikzeta-rako irailaren 30a baino lehen eman behar da.



Ana Davila (erdian), Arimadun Altzariak-eko irakaslea (ezkerretik bigarrena) eta beste hiru ikasle. L. CARRASCO

«Ideia nagusia da jendeak altzari, egur edota beira ekarri eta sortzen hastea»

ANA DAVILA ARIMADUN ALTZARIAK-EKO IKASLEA

Altzariak zaharberritzeko edota eraldatzeko aukera dago Ibarako kultur etxean; kultur lantegietan aukera zabala prestatu dute, eta horietako bat da Arimadun Altzariak ikastaroa

Leyre Carrasco Ibarra

Herri gehienetan bezala, Ibarren ere prest dituzte kultur lantegiak. Izen ematea zabalik dago eta besteak beste, altzarien zaharberritzea eskainiko dute. Arimadun Altzariak izena du ikastaroak eta Marta Minaya da irakaslea. Ana Davila ikasleetako bat da.

Zer egiten duzue Arimadun Altzariak tailerrean?

Idea nagusia da jendeak altzari, egur, beira edota edozein material ekartzea, eta sortzen hastea. Ez duzu zertan etxean altzari zahar bat gordeta eduki behar. Guk altzari asko zaborretatik hartzen ditugu eta horiek erabiltzen ditugu, hau da, bigarren bizi-tza ematen diegu altzariei. Adibidez, ate-

ekin gauza asko egin daitezke; markoak edo erlojuak, adibidez. Zuk zerbait ekartzea eta zer egin daitekeen pentsatzea da ideia. Librea da, nahi duzuna egin eta sortu dezakezu. Aulki bat ekartzeak ez du esan nahi aulki hori hobetu edo beste aulki bat egin behar duzunik. Aulki horrekin beste gauza asko egin ditzakezu.

Zein material erabiltzen duzue?

Materiala denen artean erosten da, eta ondoren, biltegian gertatzen da aurrerago erabili ahal izateko. Tailerrean ez dugun material bereziren bat behar izanez gero, etxetik lasai ekar dezakezu, baina, oro har, hor ditugu tresna eta material guztiak. Askotan tapizatzen dugu, esprai edo brotxa bidez margotzen dugu, eta produk-

tu berriak erabiltzen saiatzen gara, hala nola, klarionaz egindako pinturak edo disolbatzailerik ez duten edo disolbatzaile-karga gutxi duten pinturak ere.

Zaborretik noiz behinka altzariak hartzen dituzuela aipatu duzu. Txangoak egiteko ohitura izaten duzue materiala biltzeko asmoarekin?

Pandemia baino lehen, urtean behin joaten ginen Frantziako azoka batera. Pandemiaren ostean, ohitura hori utzi egin behar izan genuen. Guk ez dugu txangoak egiteko ohitura handirik, baina ehoziri tailerrekoak bai. Horiek gehiago mugitzen dira, ehoziriko azoka askotara joaten baitira.

Non egiten dira tailerrak?

Tailerrak Ibarako kultur etxean egiten dira, etxabe handi batzuetan. Instalazioa oso ona, handia, zabala eta aireztatua da, eta orain arte seguru egoten lagundu digu.

Zenbat pertsona osatutako taldeak izan behar dira?

Tailer bakoitzeko taldeak gutxienez zortzi ikasle osaturik daude eta gehienez hamabi. Tailer horiek adin eta pentsaera ezberdinetako jendearentzat zuzenduta daude. Ez duzu zertan erretiratu-ta egon beharrik tailerren batean izena emateko; jende guztiak parte hartu dezake. Egia da Ibarako eta inguruko herrietako jende asko dagoela, baina edonondik etor daiteke jendea.

Zer eskaintzen dute tailerrekin?

Egunerokotasunetik deskonektatzeko eta beste gauza bat egiten hasteko balio dizu, hau da, bizitza-eritmoarekin ordu pare bat deskonektatzen lagunduko dizu. Gainera, talde trinko bat osatu dugu, eguna elkarrekin pasatu eta zure arazoak edota ilusioa partekatzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO

Ibarako kultur lantegiei buruzko informazio gehiago:

Ataria.eus/Ibarra

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Asteklima, aldaketa klimatikoari aurre egiteko

Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen bigarren edizioaren barruan ekitaldiak izango dira Tolosaldean

Erredakzioa

Irailaren 24tik urriaren 3ra, Asteklima Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen bigarren edizioa egingo da. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatzen du ekimena, EEE eta Ihobe erakunde publikoen bidez, herritarrak ezinbesteko trantsizio energetiko eta klimatikoari buruz kontzientziatu eta mobilizatzeko.

2019ko edizioan, ehun jarduera inguru antolatu ziren Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 49 udalerrri-

tan, herritarrak beren eguneroko ohituretan jarduera zehatzekiko konpromiso pertsonala hartzera bultzatzeko, ekintza oro, antolatzailen esanetan, «txikia izan arren, garrantzitsua dela kontuan hartuta». Iaz pandemiaren ondorioz Asteklima bertan behera geratu ondoren, etzi abiatuko den bigarren edizioak egutegi zabala eskainiko die herritarrei.

Tolosaldeko herri ugari egin dute bat Asteklimarekin, eta gehienetan izango dira ekitaldiak: hitzaldiak, ibilaldiak, solasaldiak, ipuin kontaketak... haur nahiz helduentzat.



«Gizakion agerpenari ere eutsi diote, animalia bizkorak dira odonatuak»

IÑAKI MEZQUITA
ENTOMOLOGOA

Jon Miranda Alkiza

Datorren astean Fagus Alkiza interpretazio zentroan *Odonatuak*, uraren hegoak erakusketan zehar

bisita gidatuak egingo ditu Iñaki Mezquitak (Alegia, 1959) Aranzadiko entomologoak. Haur eta helduentzako bisitak izango dira.

Zer dira odonatuak?

Odonatuak dira intsektuen barruko orden bat. Intsektuak animalia klase bat dira eta horren barruan ordenak daude. Odonatuak bi adarretan daude banatuta: sorgin-orratzak eta burruntzia. Lurrean dauden intsekturik zaharrenetarikoa dira. Duela 300 milioi urte sortu ziren eta gaur egunera arte iraun dute. Garai hartako organismo gehienak bezala gaur egungoak baina handiagoak ziren ordukoak. Burruntzi batek, hemen, 9-10 zentimetro neurtzen ditu orain eta garai hartako karboniferozko fosilak topatu dituzte 70 zentimetrokoak.

Erraz bereizten al dira sorgin-orratzak eta burruntzia?

Bai, gertatzen dena da euskaraz animaliei ez zaizkiela izen arruntak jarri espezieka, sinonimo bezala funtzionatu duten izen generikoak erabili izan ditugu. Odonatuak izan arren biak bereizi egin behar direla uste dugu.

Sorgin-orratzak, hemen Euskal Herrian behintzat, oso animalia lirainak eta finak dira. Txikiak izan ohi dira eta bide motzean egiten dute hegan. Mailu itxura duen buruaren bi albotan dauzkate begiak. Eta geldidun daudenean, beste espezie askok bezala hegala bildu egiten dituzte. Burruntziek, aldiz, ezin dute hori egin. Pausatzen direnean ere hegoak beti zabalik izaten dituzte, gurutze bat osatuz. Sendaogak dira, burua biribila izaten dute eta begiak kontaktuan izaten dituzte.

Panel ezberdinetan zer azaltzen duzue erakusketan?

Dugun informazio guztiaren entresaka egin behar izan dugu, gure ilusioa litzateke gauza gehiago kontatzea. Baina informazio gehiegi ematea askotan kaltegarria izaten da. Uste dut emandakoarekin asmatu dugula.

Gizakiok bezala ura beharrezkoa dute odonatuak. Hori da beraien habitat naturala.

Irailaren 27tik urriaren 1era. Zume bizia erabiliz eraikuntzan tailerra.

Asteasu

Irailak 24. Bizikletak konpontzeko ikastaroa, 17:00etan plazan.

Irailak 29. *Ekologista naiz baina...* hitzaldia udaletxean, 19:00etan.

Villabona

Irailak 30. Basoaren kudeaketaz hitzaldia, Gurean, 19:00etan.

Ibarra

Irailak 29. Bizikletak konpontzeko ikastaroa, 17:00etan plazan.

Irailak 30. *Ekologista naiz baina...* hitzaldia plazan, 19:00etan.

Lizartza

Irailak 30. *Energia eraginkortasuna*

eta berriztagarriak etxean solasaldia, 19:00etan udaletxean.

Orexa

Urriak 1. Niaren bidaia antzezlan, 18:00etan, Ostatuan.

Berastegi

Urriak 1. *Eraldaketa arako kontuak* kontaketa, 17:00etan liburutegian.

Ikaztegieta

Urriak 2. Bizikleten mekanika ikastaroa, kiroldegian, 10:00etan hasita.

Urriak 3. Bizikleta ibilaldia, plazatik abiatuta.

Irura

Urriak 4,5,6. Klima aldaketaren inguruko erakusketak eskola zaharretan.

xeroak dira, gustatu egiten zaie ingurua aztertzea. Edozer gauzari begira egoten dira eta azkenean hori haien kalterako izan da.

Urmaletan, erreketan, putzuetan topatuko ditugu.

Bai eta toki horiek eraikuntzarako baliatu izan dira maiz. Gurea ere ez da kasu bakarra, Europan, odonatuak %60-70 galdu da putzu eta hezegune txikietatik. Gizakiok harreman zaila izan dugu odonatuarekin, beraiek bizi diren tokiak balio ez duten tokitzat eta zikintzat jo izan ditugulako. Eta hain justu alderantzizkoa da, guretzat atseginak ez diren beste intsektuak jaten baitituzte.

Hezegune horiek babestea, beraz, garrantzitsua da?

Bai. Babestea eta berriak sortaraztea. Eskola urmaletan sarea ari gara osatzen orain Aranzadi zientzia elkartetik. Berria egitea, aurretik zeudenak berreskuratzea edo inguruan dauden putzuak baliabide didaktiko bezala erabiltzeko modua ematen ari gara. Oso pozik gaude proiektuarekin.

Irati Saizar Artola

Klima aldaketaren eta energia-
ren inguruan kontzientzia pizte-
ko *Eraldaketarako kontuak* ize-
neko ipuin kontaketa bat presta-
tu dute Itziar Saenz de Ojer, Eli
Trojaola eta Xabino San Sebas-
tianek. Kontalari lanetan ariko
dena Saenz de Ojer izango da, eta
guztia prestatzen lagundu diote
beste biek. Aste klimaren bar-
ruan, hiru emanaldi lotu dituz-
te eskualdean: irailaren 28an
egingo dute estreinaldia Lizar-
tzan, 18:00etan udal aretoan;
irailaren 30ean Anoetan,
17:30ean; eta urriaren 1ean Be-
rastegin, 17:00etan.

Nondik sortu zaizue ideia?

Itziar Saenz de Ojer: Kezka ba-
tetik sortu zaigu ideia. Aste klima
datorrenez, garrantzitsua irudi-
tzen zitzaigun klima aldaketaren
gaia mahai gainean jartzea, le-
hen mailako arazo baten aurrean
gaudela uste dugulako. Bada ga-
raia lehen mailako leku bat ema-
teko arazo honi. Hausnarketa
horretatik abiatu gara.

Zuen kezkatik abiatuta jen- dea hausnarketara bultzatu nahi duzue?

Eli Trojaola: Urteetan ari gara
entzuten klima aldatzen ari zai-
gula, baina guk ez dugu aldake-
tarik egiten. Kontaketa honetan
transmititu nahi duguna da, era-
kunde mailan gauza asko egin
daitezkeela, baina norbanako
mailan ere bai. Besteek egin zain
gaude eta ez dugu gurea egiten.

Nola kontatu daiteke horrela- ko gai bat ipuin bidez?

Saenz de Ojer: Lehenik asko ira-
kurri dugu. Kontzientzia ba-
nuen, baina informazioa falta zi-
tzaidan. Uda irakurtzen eta zer
material zegoen ikusten pasatu
dugu, gerora ipuin kontaketa
prestatzeko. Ez da ohiko ipuin
kontaketa bat izango, ez baitauz-
ka ipuinak bakarrik. Bizpahiru
ipuin txertatu ditugu kontake-
tan, baina horiez gain, azalpen
batzuk sartzen ere ahalegindu

«Aldaketa txikia bada ere, askok eginda handia izan daiteke»

ITZIAR SAENZ DE OJER ETA ELI TROJAOLA KONTALARIAK

Gizakia naturan eta kliman sortzen ari den desorekaren inguruko
ipuin kontaketa didaktikoa lantzen ari dira; irailaren 28an eta 30ean
eta urriaren 1ean, eskualdean eskainiko dituzte hiru saio



IRATI SAIZAR ARTOLA

gara, era atsegin batean. Badu
antzerkitik eta badu ipuinetatik,
eta amaieran tarte didaktiko bat
eskainiko dugu, saioak inoiz bai-
no gehiago duelako eduki batzuk
transmititzeko eta hausnartu
arazteko helburua.

Zergai landuko dituzue?

Saenz de Ojer: Zuzenean ez di-
tugu gaiak landuko, iradoki egi-
ten ditugu ipuinen bidez. Adibi-
dez, mahai gainean jartzen den

gai konkretu bat elikaduraren in-
gurukoa da; jaten dugun produk-
tua bertakoa bada, energia alde-
tik kontsumo gutxiago beharko
du produktua urrunetik etortzen
denean baino. Basoaren zaintza
ere ukitzen dugu. Hausnarketa-
rako tarte luza nahi da, oro-
korrean, ereduaren inguruan.
Klima aldaketa gu ari gara eragi-
ten, gure bizitzeko eraren ondo-
rioz.

Trojaola: Abiapuntua energia
bera da, baina gaia oso zabala da
eta ezin da dena kontatu, ezta sa-
kon kontatu ere.

Saenz de Ojer: Kontzientzia gal-
deretatik abiatzen da. Kontura-
tzen gara jaten dugun elikagai
bakoitzak ze prozesu behar izan
duen guregana iritsi arte? Bi-
daiatzen dugunean zer ari garen
jaten konturatzen gara? Bizi ga-
ren gizarte azkar honetan, ez

gara hainbat gauzez kontura-
tzen. Guk argi daukagu goitik al-
daketak etorri behar dutela, bai-
na norbanakook ere asko egin
dezakegu gure egunerokotasu-
nean horrelako galderak egiten
badizkiogu gure buruari.

Nola antolatu dituzue saioak?

Trojaola: Kezka batetik abia-
tzen da eta kontaketa bat egiten
da, baina mugimendu bat sortu
nahi da. Arazo nagusienetako
bat da pentsatzea besteek kon-
ponduko dutela, eta norbanako
bezala egiten dudana hutsaren
hurrengoa dela eta egin edo ez
egin berdin dela. Norbanako be-
zala, gutxi izanda ere, garrantzi-
tsua da egitea, nahiz eta horrek
klimaren aldaketa ez duen alda-
tuko, baina denok hasiko bagina
hori egiten, beste inpaktu bat
izango luke. Txikia bada ere al-
daketa, askok egiten badute han-
dia izan daiteke.

Amaieran material bat ere prestatu duzue parte hartzaileei emateko.

Saenz de Ojer: Jende askok kon-
tzientzia piztuta dauka, baina
beste bultzadaxo bat eman nahi
diegu saioarekin. Kontzientzia-
tik harago joan eta pauso konkre-
tuak ematen hastea nahi dugu.
Ekintzara pasatzeko garaia da,
beraz, jendea kezka batekin
ateratzen bada saiotik, ideia ho-
riek elikatzekeo dinamika bat
egingo dugu amaieran, zeinetan
hainbat ideia emango diren, eta
parte hartzaileei diptiko bat
emango diegu hainbat informa-
zio eta proposamenekin.

Nori zuzendutakoa da?

Trojaola: Sei urtetik gorakoen-
tzat prestatu ditugu. Kontaketa
izanagatik, helduentzako ere ba-
dela adierazi nahi dugu. Haurrak
egotea garrantzitsua iruditzen
zaigu, baina baita helduak ere,
izan ere, gai honetan bereziki
erreakzionatu beharra helduok
daukagu. Hurrei naturarekiko
maitasuna edo naturaren zain-
tzaren ikuspegi bat transmiti-
tzea tokatzen zaigu.



1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako
bina sarrera



mendexpark.com
688 85 62 83
MENDEXA
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako
bina sarrera



aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 SANTANA ESNEKIAK

Fruitu gorri, marrubi eta yogur naturalez
osaturiko opari sorta!
Baserritik zuzenean
% 100 naturalak!



685 79 61 74
Kortezubi
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



ENERITZ MAIZ

«Beti izan dut herrira begira taberna irekitzeko gogoia»

UXER MOZO EIZMENDI OSTALARIA

Uztailean ireki zuen Ikaztegietako Ostaturia Mozok, eta udako opor giroa atzean utzita, lanari neurria hartzen ari da; herritarrentzat lan egitea «gustuko» duela aitortu du, eta herritarrek egindako harrera «eskertu» du

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Ez dira hiru hilabete Uxer Mozo Eizmendik (Ikaztegieta, 1998) herriko Ostaturia zabaldu zuela. Udako hilabeteak pasata, orain ari da eguneroko martxari neurria hartzen. Herriari «bizia» eman nahi dio Ostaturiarekin, eta oraindik agertu ez diren herritarrei «beldurrik gabe» gerturatze-ko deia luzatu die.

Uztailaren hasieran ireki zenuen herriko Ostaturia. Zer moduz ari zara?

Ondo. Egia esan hasiera nahiko gogorra izan zen. Mentalizatuta nengoen horrela izango zela. Udan irekitzearekin, uztail betebetan, jendeak oporrak dituen egunak dira, baina gustura nago jendeak egin didan harreraren-

gatik, eta baita nire lanarekin ere.

Hasiera gogorra, beraz.

Jende asko oporretan, egoera honekin jende asko oporretara ere joan gabe, eta gainera jendeak herrian geratzeko joera ere badu Ikaztegietan, eta alde horretatik lan askorekin.

Irekitzerako guztia lotu eta antolatu beharra ere bai.

Duela hiru urte ere aritu nintzen lanean taberna honetan, eta banekien nondik zihoan kontua. Alde horretatik ondo, baina ezberdina da langile moduan aritzea edo zurea izatea ostaturaren ardura.

Nolatan animatu zinen herriko ostaturia irekitzera.

Beti izan dudana ideia izan da, eta taberna mundua gustatzen zait. 17-18 urte nituela tabernan lane-

an aritzen nintzen, eta herrira begira eta ez kanpora begira taberna irekitzeko gogoia edo ideia aspalditik nuen kontua da.

Bazenuen har hori orduan.

Bai. Eta oraintxe parean egokitu zait. Aurrekoari kontratua amaitzen zitzaion, eta lanean ari nintzen, baina aukera izan nuen lana utzi eta mundu honetan sartzeko.

Ikasketekin beste bide bat hartu eta lan munduan ere sartu zinen. Ez zenuen gustuko?

Mekanikako goi mailako ikasketak egin nituen, eta lanean Ikaztegietan bertan giro oso-oso onean ari nintzen, baina gorputz aldetik oso eskas sentitzen nintzen. Pisua erekin eta hautsarekin aritzen nintzen lanean, eta ez nintzen batere gustura sentitzen. Eta aukera hau suertatu zen unean Ostaturako pausoa eman nuen.

Nolakoa da herritarrentzat lan egitea?

Oso gustukoa da herritarrentzat lan egitea. Jendeak asko eskertu dit. Ireki aurretik ere asko lagundu didate, eta ireki eta gero ere nabari da herritar batek ireki duela, gaztea naizela eta gogotsu nagoela. Asko eskertzen diet.

Oso ondo hartu naute. Eta bai lagunak, eta baita familia ere beti hor egon dira laguntzeko.

Tabernaren kasuan, zer da eskaintzen duzuna?

Asteartetik ostegunera goizean irekitzerako pintxoak eginak izaten ditut, eta zerbitzu hori ematen dugu. Ez dut bazkaririk ematen. Ostiraletik igandera, berriz, bazkariak eta afariak eskaintzen ditugu. Karta moduko bat-edo plater ezberdinak, ogitartekoak, errazioak,... eta ondo moldatzen gara.

Udalak azterketa bat egin zuen herrira begira Ostaturia zer eskaini beharko lukeen. Balio izan dizu lan horrek?

Hasieratik ni ere bilera horietan egon nintzen, eta ikusi nuen jendearen ideia zein den eta nondik jotzea nahi duen. Horrek asko erraztu dit, hutsetik hasi naizen honetan herrira pixka bat egokitzen. Guztien gustukoa egitea ez dago erraza, hala ere, jendeak esaten didana beti entzuten dut, eta saiatzen naiz falta den hori ekartzen.

Ordu askoko lana da ostalaritza. Bakarrik ezin lan egin, ezta?

Hasieran saiatzen zara, eta zuk egin nahi duzu guztia, baina la-

guntza behar duzu azkenean. Asteburuetan bazkariekin eta afariekin mugimendua dugu, eta horretarako laguntza behar duzu bai sukaldean eta baita barran bertan ere. Hiru langilerekin osatu dut taldea.

Atsedeen hartzeko eguna ere izango duzu?

Lehen ere astelehena izaten zen atsedeen eguna, eta asteburuan izaten den mugimenduari, egia esan, ondo etortzen da. Astelehenarekin deskantsatu, egin beharreko erosketak egin, eta astearterako, berriz ere, indarrak errekuaratu.

«Garrantzi handia duela iruditzen zait herriko ostaturia batek martxa izatea, herriari bizitasuna emateko»

Zein ordutegirekin egiten duzu lan?

Goizean 08:30erako irekitzen dut, eta aste egunean 22:00-22:30ak alderako ixten saiatzen naiz. Afariak ez ditugu ematen eta jendeak erretiro azkarra du. Asteburuetan bai, mugimendu gehiago izaten dugu.

Herri txikia da, baina errepide ertzean egonda, kanpoko jendeak badu ohiturarik Ostaturia sartzeko?

Bai, bai. Asteazken zehar nabaritzen da langile asko daudela, eta nabari da enpresa asko daudela inguruan. Hamaiketako egitera edo kafea hartzera dezente azaltzen da.

Tabernaz arigara, baina Ostaturia denda ere bere barnean du, eta zuk kudeatu behar duzu.

Bai, herrian bertan ez dago beste inolako dendarik eta jendeak herrian ez duen horrekin kanpora joan behar izaten du. Ezin da beste supermerkatuekin alderatu, baina oinarritzko erosketak egiteko uste dut baduela aukera jendeak.

Herritarrek hartu dute ohiturarik erosketak egitera sartzeko?

Egia esan hasiera honetan gutxi. Baina, niregandik hasita, ohiturak aldatzea ez da erraza.

Bukatzeko, zer lortu nahiko zenuke Ostaturiarekin?

Beti pentsatu izan dut Ikaztegietako herriari bizi pixka bat ematea. Aspaldian nik uste ez dela izan, eta garrantzi handia duela iruditzen zait herriko ostaturia batek martxa izatea, herriari ere bizitasun hori emateko. Pixkana-pixkana nabari dut giroa. Alde horretatik, jendea gustura dagoela uste dut, eta ni ere gustura nago.

Sokatiralariek, ateak irekita

Ibarra Sokatira Taldeak hasi du denboraldia, eta gonbita egin dute bai emakumezkoen zein gizonezkoen taldetik bertara joan eta kirola probatzeko

Imanol Garcia Landa Ibarra

Udan atsedenaldia hartu ondoren, martxan jarri dira Ibarra Sokatira Taldekoak, emakumezkoetan zein gizonezkoetan. Aurreko astean egin zuten lehen entrenamendua emakumezkoek; taldean aurreko urtetik zortzi mantentzen dira eta beste bi gehitu zaizkie probatzen hasteko. «Bilera egin genuen denboraldia hasi aurretik eta zortzi geundela ikusi zen eta aurrera egitea erabaki genuen», esan du taldekidea den Oihane Sarasola ibartarrak. «Espero ez genituen baja batzuk izan ditugu, pena handiz, baina, lana eta beste kontu batzuk bateratzea ez da erraza, eta taldea utzi dute momentuz; hori bai, kanpotik ere etortzen da jendea».

Gizonezkoek ere taldea osatu ahal izan dute lehiatzeko, baina jende berriari ateak irekita dau dela azaldu dute bi taldeetatik. «Ni iaz hasi nintzen», esan du Ainhoa Pagola belauntzarrak. «Ez naiz gaztetxoa, urte batzuk baditut. Emakumezkoekin taldeko kirol bat egin nahi nuen, eta iaz gustura egon nintzen eta hemen jarraitzen dut. Kirola egin nahi duten emakumei animatzen diegu etorri eta probatzera; guk besoak zabalik hartu-



Aurreko astean egin zuten denboraldiko lehen entrenamendua emakumezkoen taldeak, Belabietan. I.G.L.

ko ditugu». Hain justu, Sarasolak gaineratu du ez dela talde itxi bat: «Entrenamenduak hasi dira eta orain da momentua, probatu eta ikusteko ea gustatzen zaien edo ez. Adin guztientzako dago irekita».

Emakumezkoen taldea astearte eta ostegunetan elkartzen da, Belabieta kiroldegian, 19:00etatik 21:00etara. Aurrerago astelehenetan mutilekin elkartuko dira, batera entrenatzeko. Sokarekin egiten diren entrenamen-

du espezifikoez gain, indarra eta alde aerobikoa ere lantzen dituzte.

Pasa den asteburuan lur gaineko Munduko Sokatira Txapelketa egin da Getxon, eta behin hori bukatuta hasiko da federazioa lehiaketan egutegia zehazten. Ibarra goma gainean lehiatzen da eta horregatik ez du parte hartu Munduko Txapelketan, laguntzaile eta ikusle moduan taldeko zenbait kide bertan izan baziren ere. Aurreko denboraldian

egin ahal izan zuten lehiaketa, baina ezohikoa izan zen, kategoria bakoitzean egun bakarreko jardunaldia egin baitzen, normalean zenbait jardunaldi egiten direnean. Azarotik aurrera espero dute Euskal Herriko txapelketekin hastea, eta ohiko egitura izango duela uste dute. Bestalde, datorren urtean goma gaineko Munduko Txapelketa izango da Herbehereetan, eta bertan parte hartu ahal izateko asmoa dute.

Unai Iribar Euskaltel-Euskadira, datozen bi denboraldietan

Erredakzioa Ibarra

Unai Iribar (Ibarra, 1999) Euskaltel-Euskadi taldean ariko da 2022 eta 2023an. Aurten, amateur tropelean sekulako maila eskaini duela esan du taldeak. Murgian, Legazpin, Duranan eta Oñatin irabazi zuen; bigarren sailkatu zen Gorlan, Lazkaon eta Kantabriako Itzulian; brontzea eskuratu zuen Espainiako Txapelketan eta 15. postua erdietsi zuen 23 urtez azpiko Italiako Giroan; horrenbestez, Abiatzen Txapelketan nagusitu zen. Iribar Tolosako Oriako Txirrindulari Eskolan aritu zen eskolatik junior mailara arte; Goierriko TB taldean eta Laboral Kutxan lehiatu da 23 urteko azpikoetan.

Iribarrek esan du profesional mailara emango duen jauziarekin «oso ilusionatuta» dagoela eta batez ere, jauzi hori Euskaltelekin, «txikitako talde erreferentearekin», eman duelako. «Oso eskertuta nago batez ere nire familiaria eta lagunei, eta nire kirol heziketan parte hartu duten pertsona orori, hala nola, Oriako Txirrindularitza Eskolatik hasita, Goierriko TB taldeari eta azkenik Euskadi Fundazioari bera ere aukera hau emateagatik». Abuztuan maillot laranja jantzi zuen Limousingo Tourrean, *stagiaire* moduan.

«Pena handiagoa gero sentitu nuen, min hartu eta hilabetera edo»

IÑAKI ARTOLA
PILOTARIA

I. Garcia Landa Alegia

Lau hilabete pasa dira Iñaki Artolak buruz buruko txapelketaren finalari uko egin behar izan zionetik, finalerdietan lesio bat izan ondoren. Alegiarrak asteburuan jokatu zuen bere lehen partida lesiotik osatu ostean.

Nola igaro dituzu azken lau hilabeteak?

Denetarik izan dut. Esango nuke aurreneko egunetan oso entretenituta, egunero egin beharrekin, medikuarena joanez edo komunikabideekin egonez. Uste dut ondo hartu nuela gertatutakoa. Ez dut uste horrelako gauzeekin zarata handia ateratzekoa naizenik. Saiatu nintzen erlatibizatzen eta ahal nuen ondoen hartzen. Kurioa dirudien arren,



BAIKO

pena handiagoa gero sentitu nuen, min hartu eta hilabetera edo. Ikusten nuen lesioa ez zela txantxetarako kontua eta denbora pixka bat beharko nuela berreskuratzen, eta finalaren arantzaz hori nahiko presente zegoela. Beheraldi txiki bat izan nuen, eta

gero, agian hitz indartsuegia da horrelako gauza baterako, baina dolua-edo pasa eta gero, gogoz nago eta motibatuta. Penarik handiena pasata nagoela esan daiteke, nahiz eta arantzatxo hori erabat kentzea kostako zaidan.

Asteburuan berriro kantzaraututa, nola sentitu zinen?

Gogo handiz nengoen, eta gustura nago, ez hainbeste partidarekin, baina helburu garrantzitsuen berriz bueltatzea zen, minik gabe bukatzea. Eta ondo joan zen, ez dut molestia handirik izan. Gaur [atzo] entrenatu ahal izan dut pixka bat, eta gustura nago. Konturatzen naiz oraindik beldurrez askatzen dudala besoa; oraindik normal ez dago, baina uste dut mina baino beldurra izango dela, eta kentzen joango dela pixkana. Igandean beste

partida bat daukagu, eta horrek ere lagunduko du. Orain pixkana konfiantza hartzen goaz.

Lau eta Erdiko Txapelketa ate joka dator.

Ez da nire helburu nagusia oraintxe, jokoa hartzea baitut buruan, berriro sentsazio onak bilatzea. Baina nahigabe ere, beti txapelketa baten atarian esperantza eta ilusio puntu hori izaten da; ahal den neurrian ere saiatu naiz lau eta erdian entrenatzen, eta fisikoa ere txapelketa horretara bideratuta landu dut. Egia esan, gogotsu nago. Kezka ere banuen, nola iritsiko naizen; nik gutxienez aurretik pare bat partida jokatzea nahi nuen, eta nahiko gustura nago epeak nola geratu diren ikusita. Oker ez banago niri txapelketako lehen asteburuan jokatzea tokatuko zait, final-zortzirenetan.



ASTEAZKENA, 2021EKO IRAILAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



146 eguzki panel ezarriko dituzte

Villabonako udaletxeko eta pilotalekuko teilatuetan jarriko dituzte; udal eraikinen kontsumoaren %30 hornituko dute

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eguzki energia berriztagarriaren sorkuntzarako panel fotovoltaikoak ezarriko dituzte Villabonako udaletxeko eta udal pilotalekuko teilatuetan. Amasa-Villabonako Udalak «larrialdi klimatikoari aurre egiteko ezinbestekoa den energia trantsizioa garatzeko konpromisoan», datozen hilabeteetan beste aurrera urrats garrantzitsu bat emango du, beraz.

Inbertsio honek kutsadura atmosferikoa eta berotegi-efektuko gasen isurketak gutxitzea ekarriko duela esan du udalak. Proiektu honen bidez, 60 MWh inguru sortuko dira urtean, eta udal jabetzako eraikinen kontsumo osoa (800 MWh) asetzetik urrun badago ere, udal ordezkarien esanetan, lehen pausoa izango da autohornikuntzara bidean. Aldi berean, instalazio honek herritarren energia komunitateak sustatzeko bidean eredu garria izan beharko lukeela adierazi dute.

Ezarriko diren eguzki panel berriekin Villabonan dauden hainbat eraikin publiko hornituko dira: udaletxea, Arroa auzoko Fleming herri eskola, kultur etxea eta musika eskola, pilotalekua, Gurea antzokia, Seaska haur eskola eta Salbadora erreti-



Urtean ia 22 tona CO2 emisio gutxitu ahalko dela aurreikusi dute. ATARIA

ratuen elkarteak. Eraikin guzti hauen energia (200 MWh) kontsumoaren %30 ase ahal izango dela azaldu dute.

CO2 EMISIO GUTXIAGO

Guztira, 146 panel fotovoltaiko ezarriko dituzte: udaletxeko teilatuan 26 eta pilotalekuan beste 120. Panel guzti hauek 58,4 kWp-ko potentzia instalatua dute eta, urtean, 61.411,29 kWh-ko energia sortuko dutela aurreikusten dute. Udalak energia horren ia %87 bere autokontsumorako erabiliko du eta soberakina energia-sare orokorrean txertatuko du. Udalak esan duenez, urtean 21,923 tona CO2 emisio saihestuko direla aurreikusten du.

71.908 euro bideratuko ditu udalak egitasmoa gauzatzera. Horietatik, 5.687 euro ingeniari-tza lanetara bideratu da eta beste 66.221 euro plaken hornidura eta instalaziora. Udalak beste erakunde publikoetatik diru laguntza garrantzitsuak lortu ditu: Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) 12.750 euro eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 26.808 euro.

Udalak «poztasuna» adierazi du hilabete gutxi barru egitasmoa errealitate bilakatuko dela. Gainera, udal gobernua etorkizunean ingurumena zaintzen jarraitzeko, larrialdi klimatikoari aurre egiteko eta energia trantsizioan urrats berriak emateko konpromisoa berretsi du.

ASTEAZKENA 22

AGENDA

Deialdiak

Tolosalea. Gaitasun sortzaile eta ekintzaileak tailerra, Lehiberrin, 09:00etan.
Zizurkil. Hotzaldiko katarroei laguntzeko erremedio naturalak tailerra, 15:30ean, Fraisoron.
Irura. Kattalin Minerren Moiolana aztertuko dute irakurle taldean, 18:30ean.
Tolosa. Buru Bihotzez elkarteak antolatuta ¿Y tu quien eres? filma, kultur etxean, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Azken Muga erakusketa, Zaratetxen.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearekin, prentsari begirada, eskualdeko albisteak, kolaboratzaileen tartea...
15:00. Desafioa. Herri kirolen inguruko saioa, Joxe Angel Sarasolarekin.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko magazina.
20:00. (H)ari Naizela. Bertsolaritzaren inguruko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Tapa Pala (Oria Ibaia)

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leire Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro atsegina izango dugu. Goizean hodeiak ugariak izango dira eta ez da baztertzeko lau tanta botatzea ere. Hala ere, goiz erditik aurrera ateri eutsiko dio eta arratsaldean ostarte politik zabalduko dira. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura igo egingo da, 19-20 graduan joz goia.

Bihar. Eguraldi polita izango dugu. Goizean, behe-lainoa agertuko bada ere, eguzkiak laster xurgatuko du eta eguraldi ederra geratuko zaigu. Hodei batzuk agertuko badira ere, zeruan urdina nagusituko da. Haizeak ipar/ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da. Maximoak 19-20 graduan kokatuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



BOZKATU GUSTUKOENA ATARIA.EUS-EN



Udako argazki lehiaketa



nekatur
'Opari Bonu Orlegia'
Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90
Epaimahaiaren saria



BAILARA
RESTAURANT
bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiatzko Bailara jatetxean
iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Goiatz. - 943681234
ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



lixoné
Cuidado Natural
Lixoneren bi saski zozkatuko dira.
cosmenticalixone.com
Ibaiondo induristegia, 11. Aduna. - 943691280
atarikide-en saria